2 Ona hemen landareen nutrizioan parte hartzen duten elementuak eta betetzen dituzten funtzioak.

a) Osa ezazu infograma elementu bakoitzaren izenak txertatuz.

**ELEMENTUAK**

ura eta gatz mineralak | azukrea | sustraiak | klorofila | oxigenoa ($O_2$) | eguzki-izpiak | zurtoina | hostoak | karbono dioxidoa ($CO_2$)

# LANDAREEN NUTRIZIOA

Landareek, bizidun guztiek bezala, elikatu eta arnastu egin behar dute bizitzeko.

| ANIMALIAK | LANDAREAK |
|---|---|
| Elikatzeko, mantenugaiak eskuratu behar dituzte. | |
| Animaliok ahotik sartzen ditugu mantenugaiak. | Landareek sustraien bidez xurgatzen dituzte gatz mineralak eta ura. |
| Mantenugaiak, elikagai bihurtuta, gorputz guztira zabaltzen dituzte. | |
| Zainen eta odolaren bidez garraiatzen ditugu elikagaiak. | Zurtoinak ditutzte xurgatutakoa hostoetara garraiatzeko. |




## NOLA SORTZEN DUTE ELIKAGAIA?

Eguzki-izpiek klorofilari eragindakoan gertatzen da. Zurtoinak garraiatutako gatzak eta ura, arnastean botatzen dugun karbono dioxidoarekin ($CO_2$) nahastu eta azukre bihurtzen dira. Elikagai hori zurtoinak garraiatzen du landare guztira. Prozesu horri fotosintesia deitzen zaio, eta hondakin moduan oxigenoa ($O_2$) kanporatzen da.

## ZER ARNASTEN DUTE?

Bizidun guztiak bezala landareek ere oxigenoa ($O_2$) arnasten dute eta karbono dioxidoa ($CO_2$) kanporatzen dute. Gauez argirik ez dagoenean fotosintesia ezin denez egin, arnasketa bakarrik egiten da. Egunez, fotosintesia dela eta, kanporatzen den oxigeno kopurua askoz handiagoa da arnasketarako erabiltzen dena baino.

Hortik dator gauez landareek oxigenoa lapurtzen digutenaren ustea.